

Doktore aurreko Formazio Ikerlariak deituta batzarra burutu da gaur Leioan



Formazio Ikerlarien
bileraren irudi bat.

Gaur eguerdi partean, doktore aurreko Formazio Ikerlariak antolatutako batzarra burutu da Leioan. UPV/EHUn ordezkaturik gauden sindikatuok deituta egon gara 100 ikerlari bildu diren bilerara.

LABen ordezkariok iragan astelehenean sindikatuok EHUKo administrazioarekin egindako Irakasle eta Ikerlarien (IRI) Negoziazio Batzordearen bileraren berri eman dugu. Besteak beste, eta erantzukizunak erantzukizun, bide judizialaren gainetik negoziazio kolektiboa lehenesten dugula adierazi dugu, kolektiboaren eskubideak defendatzeko bide eraginkorrena delakoan.

Sindikatuarekin izandako bileraren ostean, Formazio Ikerlariak euren batzarrarekin jarraitu dute, kolektibo moduan hartuko dituzten ekimen eta erabakiak eztabaidatu eta hartzeko. LABek gaia lantzen eta, orain arte bezala, kaltetuak informatzen jarraitzeko asmoa du.



LABen ordezkarietako bat batzarrean informatzen.